

Arturo Campion Jaunari

Campion Jaunak añ era onean eman dit eskatzen nion erantzutea, non iruditzen zat irakurtuko dituala oraindik, kejatu bage, bururatzen zazkidan beste oarkera batzuek.

Lendabizi esaten baitu Euskerak dituan arauak autsitzea dala, ipintzea: «*begiretzen* DIOT»; eta esan bear dala «*beguiratzen* DET»; ez naiz, ni, jasoko esate orren kontra. Igerritzeko det, Euskeraren onetan ainbeste lan egin duana, une onetan ere, bide zuzenean dala. Ontzat artu nai det beraz gai onetan diona. Frantzi aldeko Euskaldunak, bai-ta Espaiñako agitzek ere, esaten due «*begiretzen* DUT *gauza bat*» adierazteko «*gordetien duela*». Zertarako ez esan beraz «*begiraten* DET» adiarazi nai danean «*begien* aurrera artutzen dala?»

Bainan emen bada nik ulertzen ezdedanik. Kastillako itzkerak emanda badeukagu esan dalako itz (*begiratzea*.) orrekin egiten degun utsa, nola ez gaitu uts berera eror arazten beste edo-zein izenekin?... Zabaldutitzagun Bízkaiko, Guipuzkoako, Lapurdiko jakintsuak argitaratu liburuak, eta ez degu billatuko arako itz (*begiratzea*) orrekin uts bera egin ez duan bakar bat.

Nere galde oni «Lapurarrak zer ajola zuen Kastillanoak jarri litzaten eren itzak alde batera edo bestera», Campion Jaunak erantzuten dio «Frantziko Nafartarrak, artu eren anai Espaiñ aldekoetatik orrelako itz egitea, eta iragen erazo zuela Lapurtarrari». Lan ori ere zail šamar izango zan: gutši dira ta izen au (*begiraten*) eren itzkeran erabilten duen erriak; bada arren orde z esaten due : «*so egitea*».

Campion Jaunak egia dio, bai, esatean kostatarrak ere baduela arau guzien kontra dan itzkera bat; bañon, kostatar ez izaten naiko da, ikusteko. ez duela itz egiten ondo. Eta aldiz nik, euskeraz itz egiten dan edo-zeiñ aldetan, esan dezadala : «*begiraten* DIOT *gauza* BATI»; zeñiñ gogorako zaio bear ez bezela itz egiten dudala?

Gure itzkera eder eta berdinek gabean nola sartua ote degu uts ori, eta sartua ezurretaraño? Origen da nik ikusten ez dedana.

Ona oraiñ itz bakar batzuek nere bigarren oarkeraz. Campion Jaunak idatzi, *Euskal-Esnalean*, Zuberoko Euskaldunak oso gaizki mintzo dirala; esan bear duenean, orain berean, «batek eman diola gauza bat beste bati»; orduan, esan orde: «*ematen* DIOT *gauza bat Pedrori*», esaten duela : «*ematen* DUT *gauza bat Pedrori*.» Jarri balu, oraiñ, Inchauspe Jaunaren liburua eskuetan, esaten didana, erraz egongo nintzan ezertšorik ere idatzi bage. Bañon, ni, jakiña Zuberotarren artean ez dira gutšiak benetako aruari jarraitzen diranak, eta... zer egin det?... bear baño utsiki aundiagoa.

Oraindik egun asko ez duala, hango errietan norabillan. Bada bertako apaiz batekin nengoala jardun gure Euskeraz, galdetzen diot: «Nola «esango ziñuke adiarazteko eman nai diozula makilla bat Pedrori? — «Nik esango nioke, erantzun zidan, *ematen* DIOT *makilla Pedrori*.» Andik berealašen ikusi gu ganontz zatorren nekazari bat, eta apaizak esaten dit: «Egiozu galde bera gizon orri. Onen gandik jakingo dezu «nola itz egiten duen euren artean». Eta ona nekazariaren itzak: «Nik esango nuke : *Ematen* DEROT, edo : *ematen* DOT *makilla Pedrori*.»

Eta oraiñ Iruñako Euskalzale aitatuak barka bekit galdu erazo diodan aldia, eta artu beza, begirunez betea dan biotzetik egiten diodan agurra.

P. BASILE JOANNATÉGUY.

